

Luis Liz Marzán Italiako Akademia Nazionaleko kide

CIC biomaGUNEko Ikerbasque irakaslearen ibilbidea aitortu du Accademia Nazionale dei Linceik, atzerriko akademiko izendatu baitu

Liz Marzán nanopartikulen sintesian eta aplikazioan mundu mailako aditu dela aitortzen duten aintzatespen ugarietara gehitu zaie azken izendapen hau

Donostia, 2024ko azaroaren 11. Luis Liz Marzán, CIC biomaGUNEko Ikerbasque irakaslea, atzerriko akademiko izendatu du [Accademia Nazionale dei Linceik](#) (Italia), Zientzia Fisikoen, Matematikoen eta Naturalen kategorian, Akademiak Erroman duen egoitzan ostiralean izan zen ekitaldi batean. Hotsandiko sarrera-ekitaldiaren ondoren, Liz Marzán irakasleak hitzaldi bat eman zuen bere ikerketa-lanaren gako nagusien inguruan. Bere aldetik, Akademiako presidente Roberto Antonellik adierazi du “irmoki uste” duela Liz Marzán irakaslearen ekarpenek “areagotu egingo dutela Accademia dei Linceik zientzian eta kulturaren duen izen ona”. Akademia, XVI. mendean sortua, tradizio handikoa da; hastapenetan Galileo Galilei izan zuen kide, besteak beste, eta gaur egun zenbait Nobel saridun dauzka tartean, italiarrak zein atzerrikoak.

Liz Marzánek adierazi duenez, “ohorea handia da hain instituzio entzutetsu honen parte izateko hautatua izatea. Ez dugu ahaztu behar, ordea, nahiz eta halako aintzatespenak nire izenari egiten zaizkion, meritua gero eta gazte zientzialari gehiagorekin partekatu beharko litzatekeela; izan ere, lan bikaina egiten ari dira, eta haiek gabe ezinezko zatekeen aintzatespen hau. Haiek denek ekarpen handia egin dute gure zientzia esparru honetan erreferentziakotzat aitortua izan dadin”.

Aintzatespen honek Liz Marzán irakaslearen ibilbide zientifiko zabala bermatzen du (CIC biomaGUNEko [Bionanoplasmonikako Laborategiaren](#) buru da, Vigoko Unibertsitateko katedraduna eta CINBIO eta CIBER-BBNko ikertzaile nagusia), eta berriki jaso duen [ERC Synergy Grant](#)-ari esker (aurretik eskuratuak zituen bi ERC Advanced Grant eta bi Proof of Concept-ek gehituta) lortu du Europako Ikerketa Kontseiluaren finantziazioa 20 urtez jarraian izatea.

Liz Marzán oso ezaguna da nazioartean nanozientzian aitzindari izateagatik, bereziki nanopartikula plasmonikoen sintesian eta aplikazioan. Haren azken aldiko lanaren zati handi bat nanopartikulen aplikazio medikoekin dago lotuta, hots, farmakoen administrazio kontrolatuarekin eta gaitzen detekzio goiztiararekin. Irakaslearen diziplina arteko ikerketak benetako eragina izan dezake gure gizartean.

Aitziber L. Cortajarena Ikerbasque irakasle eta CIC biomaGUNEko zientzia-zuzendariak nabarmendu duenez, “haren lanak berritzaileak dira oso. Azpimarratzekoa da nanomaterialen sintesia eta, horrenbestez, propietateak erabateko doitasunez modulatzeko duen gaitasuna. Haren lantaldeak nanosistemen gainean lortzen duen aurrekaririk gabeko kontrol-mailarik gabe lortu ezin

izango lirakeen aplikazioak ematen dizkie nanopartikula plasmonikoei. Alor honetan duen esperientzia paregabeari esker da hori guztia egiteko gai”.

Gaitasun horiek sormen handiarekin konbinatuz, Liz Marzán irakaslea buru duen lantaldea bide-urratzaile izan da aplikazio biomedikoetako zenbait alor garrantzitsu eta askotarikoetan: besteak beste, bakterioen identifikazioa, Parkinson gaitzaren aurrerapenarekin lotutako zuntzen monitorizazioa, bioinprimaketa bidezko 3D eruedetan nanopartikulak integratzea, eta minbiziereduak garatzea gaixotasunaren mekanismoak ikertu eta terapia berriak garatzeko. “Mugako oinarriko zientzia biomedikuntzako erronka handietarako irtenbideak garatzearekin lotzeko duen gaitasuna gaoa da bere ikerketaren arrakastan eta inpaktuan”, adierazi du Cortajarenak.

Luis Liz Marzáni buruz

Luis Liz Marzán Ikerbasque irakaslea CIC biomaGUNEko zientzia-zuzendaria izan da, bai eta irakasle bisitaria ere mundu osoko zenbait erakundetan. Europako ikertzaile gutxietako bat da Europako Ikerketa Kontseiluak finantzatzen dituen eta entzute handia duten bi *ERC Advanced Grant*, *ERC Synergy Grant* bat eta bi *Proof of Concept Grant* segidan eskuratu dituena. Europako laguntza horiek eskakizun dute aurrerapen disruptiboak proposatzea, ezagutzaren muga daudenak. Liz Marzán irakaslea *Royal Society of Chemistry*ko (Erresuma Batua) eta *Optical Society of America*ko (AEB) kide da (*Fellow*). Zientzia Zehatz, Fisiko eta Naturalen Errege Akademiako akademiko osoa da, Galiziako eta Granadako zientzia-akademietako eta *European Academy of Sciences*eko urgazlea, AEBko National Academy of Engineering erakundeko nazioarteko kidea eta Anberesko Unibertsitateko *honoris causa* doktorea.

Hainbat sari jaso ditu; besteak beste, *Humboldt Research Award*, Espainiako Kimikako Errege Akademiaren domina, *Blaise Pascal Medal in Materials Science*, Jaime I.a Erregearen Saria, *European Colloid and Interface Society*ko *Rhodia Prize*, Kimika Zientzia eta Teknologiako Enrique Moles Sari Nazionala, Ikerketa Biomedikoko Lilly Fundazioaren Saria, Frantziako Kimika Elkartearen Miguel Catalán-Paul Sabatier sari frantziar-espainiarra, Portugalgo Kimika Elkartearen Lourenço-Madinaveitia sari portugaldar-espainiarra eta *Italiako Kimika Elkartearen Ciamician-González* sari espainiar-italiarra.

CIC biomaGUNEri buruz

CIC biomaGUNE Biomaterialen Ikerketa Kooperatiboko Zentroak, zeina Basque Research and Technology Allianceko ([BRTA](#)) kide baita, punta-puntako ikerkuntza egiten du Kimikaren, Biologiaren eta Fisikaren arteko eremuan, eta arreta berezia jartzen du nanoegitura biologikoen eskala molekularreko propietateetan, baita haien aplikazio biomedikoetan ere. 2018an, “María de Maeztu” Bikaintasun Unitate izaera aitortu zioten bikaintasun-baldintzak betetzeagatik, zeintzuen bereizgarri baita dagokion jarduera-esparruan inpaktu handia eragitea eta lehiakortasun-maila handia izatea mundu mailako zientzian.

Argazki-oina: Luis Liz Marzán Accademia Nazionale dei Lincei-n sartzeko ekitaldia (Erroma).

0V1A1204: Luis Liz Marzán irakaslea eta Carlo Doglioni irakaslea, Accademia Nazionale dei Lincei-ko presidenteordea.

0V1A1205: Ezker-eskuin: Roberto Antonelli irakaslea (Accademia Nazionale dei Lincei-ko presidentea), Luis Liz Marzán irakaslea eta Carlo Doglioni irakaslea (Accademia Nazionale dei Lincei-ko presidenteordea)